



Etxauriko Udala prest dago herrian aurkeztu duten proiektu energetikoa aztertzeko

“Sarbil Eguzki SL” enpresa nafarrak parte-hartze publikoari ateak irekiko dizkion proiektu agroboltaiko bat eraiki nahi du Sarbil eremuko finka pribatu batean; eskumena Nafarroako Gobernuarena bada ere, Udalak proposamena aztertzen jarraitzeko baldintza batzuk negoziatu eta ezarri ditu.

Atzo, urriak 31, Etxauriko Udalak deituriko Herri Batzar irekia burutu zen; bertan, Idoia Arizala Etxarren Etxauriko alkateak hitza hartu zuen herrian proiektu agroboltaiko bat eraikitzeko aurkeztu den proposamenaren berri emateko. Guztira, 62 Ha eta 4,4MW-ko 9 instalazio, aski 20.000 etxebizitzentzako energia beharrak asetzeko. Proiektua baimendu edo deuseztatzeko eskumena Nafarroako Gobernuarena izan arren, batzarrean ere parte hartu zuen promotorea eta lursailaren jabea Jaitz herriko bizilagun bat izanda, Udalak harekin hainbat neurri finkatu duela adierazi zuen alkateak, beti ere, gizarte eta ingurumenarendako “onuragarriagoa” izan dadin.

Horien artean, “berritzaileena” proiektuaren izaera bera da; izan ere, eta 4/2022 Foru Legeak ahalbidetzen duenez, parte-hartze publikoari eta gobernantza partekatuari ateak irekiko dizkion eta tokiko pertsona fisiko eta juridikoen parte-hartzea sustatuko duen proposamena dela esan du Alkateak. Aurreikusten diren 9 instalazioetatik gutxienez 5 jabego publiko-komunitarioa izatea ahalbidetuko da. Gainera, alde biko kontratuak (epe luzerako energiaren prezio bereziak ezartzen dituztenak) ere inguruko pertsona fisiko eta juridikoei eskainiko zaizkiela adierazi zuen, ekoizten den energia tokiko beharrei erantzuteko baliaturik.

Jarraian, energia-ekoizpena batez ere tokiko eta eskualdeko kontsumorako erabiliko dela azpimarratu zuen Etxarrenek: “horrek eskualde osoaren garapen sozio-ekonomikoa bultzatzen du, biztanleria eta enpresak errotuz”. Etekinen inguruan ere solastu zuen alkatea: “proiektua garatuz gero, eteकिनen zati bat proiektu sozialei bideratuko litzateke Etxauri, Etxauribarren eta inguruko herrietan”.

Horretaz gain, proiektuak eragin ditzakeen ingurumen kalteak ere mintzagai izan ziren. Horiei dagokionez, ingurumen-eragina 2, 5, 10 eta 15 urteetan behin aztertu eta ingurumena eta bioaniztasuna zaintzeko proiektuaren baliabideak bideratuko liratekeela azaldu zuen alkateak. “Ez hori bakarrik, proiektua promotoreak jada gauzatzen duen abeltzaintza estentsibo eta ekologikoarekin bateragarria izanen da. Proiektu agroboltaikoa da”.

Aurkeztutakoan, herritarrek euren zalantzak eta iritziak plazaratzeko tarteak izan zuten. Horiek askotarikoak izan baziren ere, gehien errepikatu ziren kezkek proiektuaren jabetza publikoa ziurtatzeko aurreikusten diren bermeen ingurukoak izan ziren, bai eta instalazio energetikoak Sarbilen eragin ditzakeen ingurumen kalteen ingurukoak ere.

Batzarra ixteko, Alkateak argi utzi nahi izan zuen, batetik, proiektua garatuz gero, inguruan (Sarbil mendia) ez dela bestelako proiektu berriztagarriak garatuko eta, bestetik, negoziatu diren baldintza horiengatik guztiengatik Udalak promotore eta eragileekin batera lanean jarraituko zuela proiektua aztertzen, ikertzen eta hobetzen, beti ere, ingurugiroaren eta lurralde antolaketarekin ikuspegitik bateragarria bada.